

## XIV. RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA

### *AZKEN ERABAKIA*

*XIV. Rikardo Arregi Kazetaritza saria* epaitzeko Andoaingo Udalak izendaturiko Epaimahaikideek -Jose Antonio Barandiaran, mahaiburuak, Allande Boutin, Laura Mintegi, Koldo Ordozgoiti, Ana Urkiza, Iñaki Zabaleta, eta idazkari gisa eta, beraz, hizpidez baina hautespiderik gabe, Nekane Goikoetxeak - aho batez adostu dute ondorengo *azken erabakia* hartu eta ezagutzera ematea.

1.- Dakizuen bezala, euskaraz egindako kazetaritza suspertzea da sari honen helburu nagusia; hasiberriek nahiz helduek urtebetean eginiko lana behatzea eta baloratzea, berriz, epaimahai honen lana. Lan on ugari daudela iritzi diote, gainera, gero eta esparru, tonu eta ahots ezberdin gehiago aurki daitezke euskaraz egindako kazetaritzan.

Rikardo Arregi gogoratzea ere sari honen xedea duzue. Haren euskaltzaletasunak eta ekimenak izan zuten aitzindaririk. Zalantzarik gabe, etxean ikasitakoak izan zuen pisurik bere ibilbidean. Sarrera honetan bere aita zen Pedro Arregi gogoratu nahiko genuke, abenduan utzi baikintuen Pedrok.

Gatozen baina, sariaren ohiko lanetara:

2.- Hurrengo hau da epaimahai honen erabakia:

\* 2.1.- “*Kazetari berria*” ataleko saria, 2.400,- euroz, diplomaz eta Xabier Laka eskultorearen oroit-ikurraz hornitutakoa. Kazetaritza munduan lehen urratsak egin dituzten gazteentzat pentsatua, gehienez 25 urte dituztenek dute aurkezteko aukera.

Epaimahaiak aurkeztu diren lanen maila handia aipatu nahi du, nahiz eta aurten besteetan baino lan gutxiago aurkeztu diren. Jakina den legez, atal honetan nahitaezkoa da autoreek beren lanak aurkeztea sarian parte hartzeko; egia esan, oso sarigarriak diren lanak behatu dituzte epaimahaikideek urtean zehar baina lehen baldintza betetzen ez zutenez, ezin izan dira mahaigaineratu. Hasten ari diren kazetariak, bada, jaso bezate epaimahaiaren gonbitea datorren ediziorako.

Aurtengo irabazleak honako merezimendu hauek ditu Rikardo Arregi Kazetaritza Sariko epaimahaiaren iritziz:

- Ongi idatzitako lana duzue, irakurtarina, freskoa eta mamitsua, oso maila ona ematen duena.
- Atal ezberdinetan, heldutasun handia erakutsi du autoreak, background handia baliatuz, mamia bere publikoari ongi egokitzen jakin du.
- Ez da, ordea, “gaztezalekerian” erori. Hartzaileak ez dira gazteen esparrura mugatzen. Darabilen tonuaren egokitasuna azpimarragarria da. Ez du irakurlea ezertara behartzen, askatasunez leihoak zabaltzen dizkio, betiere distantzia hartzen asmatzen duelarik.

- Produktu espezialdua da berea, baina, era berean, “sator” lanaren ondorioz, lagunaren eskutik jasotzen dugun gomendio forma hartzen duena.
- Egileak eginiko aukera pertsonala da erabat, eta ez die beti produktu berriei men egiten, merkatutik atera eta ekimen on klasikoak gure eskuetara ekartzen ditu.
- Lagun batek gomendioak egiterakoan erakusten duen ausardia punttua du lan honek, eguneroko presatik at egin ohi den kazetaritzaren erakusgarri.

+ *Sariduna*: **Jon Benito Aranberri jauna**.

+ *Saritutako lana*: *Gara egunkariko Gazte Algara gehigarrian 2001eko ekainetik 2002ko maiatzera bitartean argitaratutako “Sator zulotik” eta “Leiho bat” izeneko lanak.*

\* **2.2.- XIV. Rikardo Arregi Kazetaritza sariko “sari nagusia”**, diplomaz, 6.010,- euroz eta Xabier Laka eskultorearen oroit-ikurrak hornitutakoa. Honen bitartez saritzen direnak kalitatea, berrikuntza eta eredugarritasuna dira.

Hauek dira epaimahaiaren ustez azpimarratzeko alderdiak:

- Proiektua bera sarigarria izateaz batera, bere ibilbidea azpimarratu behar da. Proiektua sendotzeagatik, heldutasunera iristeagatik eta hori guztia hasierako bizitasuna galdu gabe egiteagatik.

- Berritzeko, bide berriak jorratzeko eta ongi egokitzeko borondatea argi geratu da.

- Bertako produktua izan arren, munduari irekia dago. Guztia gazteen begien galbahetik pasea dagoelarik.

- Estetika bat sortzen ari dira, euskaraz landutako bestelako gaiak, bestelako tratamendua, bestelako hizkera. Produktu ikonoklasta da, irudi apurtzailea.

- Bereziki azpimarra liteke irudiaren alderdia, maketazio lanarekin batera.

- Lan duina da, adin-esparru bati zuzen-zuzen egokitua, arrakasta lortu duena bere sektorean. Gazteek gustukoa dutela erakutsi dute, naturaltasun osoz hurbildu baitira Euskal Herriko eskualde guztietatik aldizkarira.

+ *Sariduna*: **Gaztetzulo aldizkaria egiten duen lan-taldea**.

+ *Saritutako lana*: Gaztetzulo aldizkaria.

3.- Aurten ere Ohorezko Aipamenaren aukeraz baliatzea erabaki du epaimahaiak.

Euskara hutsez idatzitako prentsa, Ipar Euskal Herriko euskaldun etorkinen eskutik, Amerikako Estatu Batuetan sortu zen, 1848an Augustin Chahok egindako “Uscal-Herrico Gaseta” alde batera uzten badugu: Los Angeleseko Escualdun Gazeta (1885-1886) eta California-ko Eskual Herria (1893-1897) dira bi astekariak.

Escualdun Gazeta 1885eko abenduan sortu zen Martin V. Biscailuz abokatuaren eskutik. Ameriketako gertatutako berriak ekartzen ditu Gazetak baina, Gazetaren %25 gutxi gorabehera iragarkiek osatzen dute; beharbada, euskarazko publizitateari hasiera emanez.

Goytino izeneko abokatu batek sortu zuen California-ko Eskual Herria. Larunbatero kaleratzen zen, 1893ko uztailetik 1897ko abendura. Estatu Batuetako informazioaz gain, Europako eta Ameriketako beste lurraldeetako berriak jasotzen ziren.

Punta-puntako informazioa lantzen zuten, ez bakarrik bertatik bertarakoa, nazioarteko nahiz Euskal Herriko berri entzutetsuenak ere biltzen zituzten.

Aipagarria da, Pulitzerren garaikideak direla bi aldizkariak, hau da Amerikako Estatu Batuetan garatutako kazetaritza modernoaren garaikideak eta harekin batera sortutako ezaugarriak ikus daitezkeela bi euskal argitalpenetan ere: salneurri merkea, hizkera xehea, ulerterraza eta berritzailea; albiste laburrak irakurle eta argitaratzaileen interesekin eta pentsamendu politikoarekin lotuak; eta sentsazionalismoa.

Bada, ordea, Amerikako Estatu Batuetan, Wyomingo Buffalo herrian sortutako beste ekimen aipagarri bat: KBBS izeneko irratian, euskal irratsaioa abian jarri zuten, 1956an, Ameriketako euskaldun batzuek. Irratsaio praktikoa zen, bertako informazioa lantzen zuena, herriko berriak, Europako Euskal Herritik joandakoen bisitak, eta abar.

Irratiak funtzio soziala ere betetzen zuen: euskaldun sendi guztietan bazegoen artzainen bat eta Wyoming zein Montanako mendi galduetan egoten ziren denbora luzez. Irratsaioa izaten zen etxearekin zuten lotura bakarra. Euskal musika, etxeko berriak...euskarri garrantzitsuak ziren artzaintzat.

Jeanette Esponda, Domingo Martirena, Jean Cinquambre, Martin Camino, Bernard Etchemendy, Pierre Amestoy, Grace Esponda, Jeanne Etchemendy, Rosalia Maya omendu zituzten 1997an Amerikako Euskal Ikaskuntzen Elkartearen eskutik, 40 urtez bata bestearen atzetik, esatari bezala lan egiteagatik.

---

Aurtengo Ohorezko Aipamena, beraz, 44 urtez luzatu den KBBS irratiko euskal irratsaioari eta hura sostengatu zuen Buffaloko euskal komunitateari egiten zaie, naturaltasun osoz, bertatik bertara euskarazko irrati lan hunkigarria egiteagatik.

Era berean, ekimen konkretu honekin batera, Amerikako Estatu Batuetan egindako euskarazko kazetaritza aipatu nahi da, bidegile, eta eredugarri izateagatik, pasa den mendeko bizi-indarraren seinale.

Ohorezko Aipamen honen helburuak, hango ibilbidea ezagutaraztea eta errekonozimendua adieraztea dira eta, bereziki, sor daitezkeen ekimen berriei ateak zabaltzea, bai baitakigu ideia-asmo berriak indartzen ari direla Ameriketean.

XIV. edizioko Ohorezko Aipamena, beraz, NABOko Lehendakari den Pierro Etcharren jaunak eta Martin Goikoetxea euskara arduradun denak jasoko dute Andoaingo Alkatearen eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariaren eskutik. Xabier Lakak egindako serigrafia eta diploma emango zaizkie. Era berean, KBBS irratiko euskal saioaren bultzaitzaile izan zen Wyomingo Buffaloko euskal komunitateari eskainitako oroigarriak helarazteko eskaera egiten diegu NABOko ordezkariari, Aipamen honen bitartez jaso dezaten gu guztion eskerrona.

Honaino, bada, *XIV. Rikardo Arregi Kazetaritza Sariari* dagokion *azken erabakia*. Epaimahaikideok ontzat ematen eta sinatzen dugu gaur, Andoainen, bi mila eta biko ekainaren hogeita bederatzian.

**José Antonio Barandiaran**

**Allande Boutin**

**Laura Mintegi**

**Koldo Ordozgoiti**

**Ana Urkiza**

**Iñaki Zabaleta**

**Nekane Goikoetxea**